



Babarrunaren Asteari ekingo diote datorren astean, berrikuntzekin

TOLOSA ▶ 'Zaporea eta osasuna' lelopean hilaren 14an hasi eta igandean amaituko da jai

BERRITUZ ▶ Ekitaldiak antolatu dituzte 'Gastronomiaren onena' egitasmoarekin elkarkidetzan ▶ 5

AITOR USANDIZAGA ▶ EHNE SINDIKATUA

«Nekazaritzari buruzko eztabaida dinamizatzea da helburua

EHNE sindikatua V. Kongresua ari da prestatzen ▶ 6



Hamar egunez kulturari ekingo diote lekua amezketarrek bihartik

AMEZKETA ▶ Bihar ekingo diote Kultur Asteari Amezketan, herriko gazteek prestatu duten *Ama begira zazu* antzezlanarekin. Hilaren 18ra bitarte izango dira ekitaldiak, egunero zerbait, hain zuzen ere. Hala, alor guztiak ukituko dituzte amezketarrek: mendi irteerak, ume jolasak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, bertsolariak, bazkariak... Adin eta gustu guztietarako aukerak izango dira, beraz, datozen hamar egunetarako. NEREA URBIZU ▶ 3

Donostiako Kursalean "Bodas Gipuzkoa Expo-Feria" handienean gure lanaren erakustaldia egitera gonbidatu gaituzte. Hori dela eta **azarokak 10 larunbata** eta **12 astelehena** ileapaindegia **ITXITA** egongo da. Barkatu eragozpenak.

ESTILISTAK Donekin?

☎ 943 67 22 44
Santa Maria plaza, 1 • TOLOSA

HITZA berritzera goaz,
bihar gertuago

MUSIKA ▶

Kantuaren gozamina

Eskualdeko sei ordezkari izango dira etzi Donostian, Gipuzkoako Kantu Txapelketaren finalean

IMANOL GARCIA

Gipuzkoako Kantu Txapelketaren finala jokatuko dute etzi, 18:00etan, Donostiako Antzoki Zaharrean. Eskualdetik sei izan dira sailkatu direnak: hiru bakarlari, bi bikote eta talde bat. Gehienek lehenengo aldiz parte hartu dute txapelketan. Guztiak Villabonako Gurea antzokian egindako finalaurrean sailkatu ziren. Eta guztiak dute larunbateko saioan kantua gozatzeko asmoa.

ALAITZ ORMAZABAL

Txapelketan bigarren aldiz parte hartzen du Alaitz Ormazabalak (Zizurkil, 1987). Bakarlarari moduan ateratzeaz gain, aurtun, iaz bezala, Lierni Aburuzarekin parte hartu du bikote moduan baina bakarlarari bezala egin du aurrera Ormazabalak. Ainhoa Ansa antolatzaileak esan zien biei parte hartzeko iaz. Kristina Solanorekin aritzen dira musika ikasten eta honek ere animatu zituen. «Solanok asko lagundu dit. Bera izan da nire irakaslea kantua munduan», dio Ormazabalak. Iazkoaren ondoren, eta Villabonan zenez kanporaketetako bat, berriro animatu ziren.

Binaka «gustura» aritu zen Ormazabal Gureako saioan, baina banakakoan «urduri» aritu zuen. Instrumentuen laguntzarik gabe abestu zuen kanta. Aukeran dantza konpainiarekin aritzen da eta hor ere instrumentuen laguntzarik gabe abesten du. «Urtebete baino gehiagoz ari naiz horrela eta ingurukoek ere animatu ninduten a capella abestera». Telesforo Monzonen *Txikia* abestu zuen eta horixe bera abestu beharko du finalean, kanporaketan abestutakoarekin pasatzen baitira finalistak. Finalera «ahal duena egitera» doa. Aurtengo maila iazkoarena baino altuagoa dela entzundu du. Berak Villabonakoan abeslariari «oso ondo» ikusi zituen.

OIHANE SARASOLA

Lehenengo aldia du Oihane Sarasolak (Ibarra, 1986) Kantu Txapelketan. Hiru musikari ditu ondoan: pianoan Jon Altuna ibartarra, trikitixan Beñat Luluaga anoetarra eta baterian Iñar Sastre irurarra. Alurr dantza taldetik ezagutzen dira, izan ere, batzuetan Sarasolak dantza taldean abesten du. Hasiera batean koadrilako batekin aurkeztu behar zuen txapelketara,



Goitik eta ezkerretik hasita, Alaitz Ormazabal, Oihane Sarasola, Naroa Geresta eta T-Klax taldea. HITZA/I. GARCIA

«baina atzera bota zen. Ni neu gelditu nintzen ez nekiela zer egin eta Jagoba Astiazaranek animatu ninduen parte hartzera». Eta Anje Duhalderen *Go-goaren baitan* abestiarekin animatu zen.

Saioaren prestaketak «ondo» joan ziren, baina finalaurrekoaren egunean, Gurean egindako entsegua «gaizki joan zen». Foko bat lehertu zen eta Sarasolak bere baitan pentsatu zuen: «Ea ni kantatzen hasi orduko gauzak puskatzen hasi behar duten. Oso urduri nengoen, izena zertarako eman nuen pentsatzen. Baina nola hirugarrena nintzen abesten, denbora handirik ez nuen izan pentsatzeko». Eszenatokira atera ondoren, «hasieran urduri nengoen, baina denborak aurrea egin ahala gero eta gusturago nengoen abesten». Sarasolak ez zuen espero sailkatzea eta berak ere nabarmen izan zela. Finalerako saioan «ondo pasatzea» du helburu ibartarrak. «Esperantza beti

dago zerbait lortzeko, baina ni ondo pasatzera noa eta gainera Antzoki Zaharrean abestea luxu bat iruditzen zait».

NAROA GERESTA

Bigarren aldiz parte hartzen du Asteasun bizi den Naroa Gerestak (Zizurkil, 1983). Iazkoan finalera pasatu zen ere, aurtengoan bezala, baina bi urteetan ez zuen espero hori gertatuko zenik. Iazkoan ikuslearen saria lortu zuen. «Maila handia ikusi dut aurtengoan», azaldu du Gerestak. «Ez nintzen oso gustura gelditu Villabonako saioarekin, denbora gehiegi ez nuen hartu prestatzeko eta eztarria pixkat hartuta nuen».

Finalerako hartu duen lanekta bakarra bere buruarekin gustura aritzea da. Eszenatoki gainean «pixkat ohituta» dago, bertsolari modura ere aritzen delako. Beste partaideak bezain urduri ez da jartzen. «Agian urduritasun puntu bat falta zait», dio. Ez dok hamairu ren *Ez kanta beltza* abestuko



du finalean Lierni Aburuza gitarrak jolea ondoan duela.

ARANTZA GOIKOETXEAUNDIA
ETA MARTA ESTANGA

Lehenengo aldiz parte hartzen dute Arantza Goikoetxeaundiak (Lizartza, 1989) eta Marta Estangak (Tolosa, 1989). «Nik hasieran ez nuen parte hartu nahi. Arantzak berak bakarrik izena eman behar zuen, baina ezer esan gabe bion izena eman zuen», dio Estangak.

Bere lagunak istorio egiaztatzen du: «Nik parte hartu nahi nuen eta nolabait erdi engainatu nion eta gitarrakoi maisuari esan nion biok izena eman genuela». Maisuak «izena eman duzu azkenean» esan omen zion Estangari eta horrela animatu zen tolosarra parte hartzera. Goikoetxeaundiak dioenez, saioan «gustura» aritu zen, «zenbait akats egin arren». Koroan batera aritu dira eta Goikoetxeaundiak Bajasuna musika taldean abeslari moduan aritzen da. Beraz badu eszenatoki gainean es-

karmetua. Ahizpak esan zion zaila izango zutela finalera pasatzea, baina jendeak abestia gustura entzun zuela ere jaso zuen. «Abesti nahiko martxosoa da eta horrek ere lagundu egingo zuen hautaketan». Finalera «ondo pasatzera» doa.

Saioan hasieran «pixkat gaizki» pasatu zuen Estangak, urduritasunak zirela eta, baina gero eszenatokira igo ondoren, «espero baino hobeto» joan zen. Estangak ez zuen espero finalera pasatzea: «Ikusi genuen jendea maila handiarekin, oso preparatuta, eszenatokira askotan igotakoa». Bakoi esan nion biok izena eman zen eta laguntzaile modura zizutzen teklatuak eta akordeoia. Ken Zazpiren *Mendigoxaliarena* abestu zuten. «Finalerako nire esperantza hobeto egitearena da», dio Estangak. «Gogoa daukat gustura ateratzeko eta gero geroakoak».

KRISTINA ARANZABE ETA
LEIRE BERSALUZE

Lehenengo aldia da Kristina



Goiko argazkian, Leire Berasaluze eta Kristina Aranzabe eta behekoan, Arantza Goikoetxeandia eta Marta Estanga. HITZA

Aranzabek (Villabona, 1991) eta Leire Berasaluzek (Aduna, 1991) parte hartzen dutela Txapelketan. Oinkari dantza talde-
tik ezagutzen dira. Orain bi urte beraien pare bat lagunek parte hartu zuten eta hauek animatu zituzten. Bestalde, bideo bat sartu zuten *youtube.com* webgunean. Lor taldearen *Zure doinua* abestiarekin, txapelketan abestu dutena, eta «jende pila batek animatu gintuen parte hartzerako», azaltzen du Berasaluzek. «Egileek ere esan ziguten oso ondo zegoela».

Berasaluzerentzat parte hartzea «oso polita» izan da eta «oso gustura» aritu ziren. Aranzaberentzat ere esperientzia «oso ona» izan zen. «Gu gaztetxoena ginen eta ez genuen espero finalera pasatzea», dio Berasaluzek. «Villabonan oso ondo kantatu zuen jendeak eta ez nuen esperantzarik», gaineratu du Aranzabek. Kantatzen aritzea ohiko jarduna dute. «Oinkari taldearekin egiten ditugun bidaietan gitarrarekin aritzen gara abesten», dio Aranzabek. Biek bat egiten dute finalera iristea dagoeneko saria dela. Lezoko saioan izan ziren eta ez zuten ikusi Villabonan bezain «maila altua».

T-KLAX TALDEA

Jon Altunak (Ibarra, 1991), Iñar Sastrek (Irura, 1986) eta Jagoba Astiazaranek (Zestoa, 1986) osatzen dute T-Klax taldea. Hiruiek abesten dute. Altunak lehenengo ahotsa egiten du, Sastrek ahots bajuen egiten du eta Astiazaranek ahots altuenena. Pianoa ere hirurek dakite jotzen, baina txapelketan Astiazaranek jo zuen. Azken honek sortutako abestia da abestuko dutena, *Zoo ilogikoa 2* izeneko eta Harkaitz Canoren hitzetan oinarrituta.

Altunak azaltzen duenez, saioarekin «gustura» gelditu ziren taldekoak. «Gero bideoan ikusi genituen zenbait akats». Taldeko beste biek ez bezala, Altunak lehenengo urtea du Txapelketan. «Maila handia zegoen eta asko gozatu genuen Villabonako saioan», dio. Hiruak elkar ezagutzen dira Alurr dantza taldekin. «Taldea bidai bat egin genuen eta Iñar eta Jagoba musikari bezala etorri ziren», dio Altunak. Finalerako sailkatu zirela jakitean «sekulako saltoa» eman zuen ibar-
rarak eta orain «gogoz» dago finalerako saiorako. Sariren bat lortzeko asmoz doa. «Gero ikusiko dugu zer gertatzen den», dio Altunak.

JOXE MENDIZABAL ▶ KILOMETROAK 2008KO KOORDINATZAILEA

«Kilometroak 2008 martxan dago»

«Kilometroak 2008 antolatzea erronka handia da», dio

I. GARCIA

Joxe Mendizabal (Ibarra, 1967) ari da Iruran egingo diren Kilometroak 2008ko koordinatzaile lanetan.

Zein izango da zure zeregina?

Batzordeak osatuta daude dagoeneko. Batzorde batean hartzen diren erabakiak bestetan dute eragina eta hori guztia koordinatzea da nire zeregina.

Nolatan zaudete koordinatzaile lanetan?

Ikuskizunetako batzordean sartu nintzen irailaren hasiera aldera eta horitx gutxira koordinatzaile postua eskaini zidaten. Ni izatez musikaria naiz eta lan berria izango da, baina lehen ere saltsa askotan ibili naiz, tartean Ikastoletako jailetan eta hainbat ikuskizunetan ere.



I. GARCIA

Urtebete hau, beraz, bizia izango da.

Bai, hala izango da, baina horrek beldurrik ez dit ematen. Are gehiago, gustatu egiten zait. Badakit erronka handia dela. Kontuan hartu behar da Irura herri txikia dela eta denok garelako beharrezkoak.

Nola doaz prestaketak?

Batzordeak martxan daude, bakoitza bere bilerak eginez. Bi ekitaldi laster egingo ditugu, baina beste hainbat gauza ditugu eskuartearen eta horiek prestatzen ari gara. Mezua da dagoeneko martxan dagoela Kilometroak 2008.

Irurarrak badute eskarmen-tua boluntarioki lana egiten.

Atzo bertan salmenta batzordeko bilera irekia egin zen eta Ikastolen Elkartetik etortzen den koordinatzailea harrituta zegoen agertutako jende kopuruarekin. Baina, boluntario horien guztien lana erregulatu egin beharra dago.

Zein ekitaldi dituzue laster?

Larunbat arratsaldean festa bat egingo dugu herrira begira Iruran bertan, Kilometroaren urteari txupinazoa emateko. Gero, hilaren 18an, aurkezpen ofiziala egingo dugu Tolosako Leidor antzokian.

AMEZKETA ▶ KULTURA

Datozen 10 egunetan zehar kulturari egingo diote lekua herritarrek

Biharko 'Ama begira zazu' antzerkia prestatu dute herriko gazteek

NEREA URBIZU

Amezketako Kultur Asteari bihar helduko diote. Herenegun gauean elkartu ziren kultur batzordekoak azken ukituak emateko. Bihar hasi eta hilaren 18ra bitarte izango dira ekitaldiak, egunero zerbait.

Bihar herritarren antzerki saioa izango da herriko frontoian, 22:00etatik aurrera. Etzi, berriz, Txikien Eguna izango da eta tartean, oreinak bisitatu dituzte mendi martxaren baitan. 11:00ak aldera abiatuko dira plazatik.

Arratsalderako, berriz, sardina jatea antolatu dute amezketarrek Ugarten. 110 bat lagun elkartuko dira pilotalekuan, Alegiko Txintxarri abebatzaren kontzertu goxoa

19:00etan Ugarteko elizan entzun ondoren. Ordubeteko izango da, guztira 11 kantuz osatutakoa. Sardinen ondoren, gazta izango da postrerako.

Tartean ere, herritarren feria egingo dute, hilaren 18an, zehazki. Bertan, animaliak, artisauek, erakusketak eta barazkiak ere izango dira, besteak beste, ikusgai, nahiz salgai.

EGITARAUA ▶ HURRENGO BOST EGUNETAN ZEHAR

AZAROK 9, BIHAR

22:00. Herriko gazteek egindako antzerkia: *Ama begira zazu* herriko frontoian.

AZAROK 10, ETZI

11:00. Txikien Eguna. Mendi marxa eguerdian.
Ondoren. Bazkaria eskolako jangelan.
16:00. Haurrentzako jolasak.
19:00. Ugarten Txintxarri.

Ondoren. Sardina-jatea antolatu dute Ugarteko frontoian.

AZAROK 11, IGANDEA

11:30. Meza ermitan.
Gero. Hamaiketakoarekin batera bertsolariak (Gorostidi tartean) eta trikitilariak (Lizarran anaiak).
14:00. Bazkaria Behartzanan (norberaren kontu).

AZAROK 12, ASTELEHENA

20:30. *Amnistiaren aldeko mugimenduarien 30 urteak* DVD emanaldia. Balioaitzeko gelan izango da.

AZAROK 13, ASTEARTEA

20:30. *Garai bateko Amezketa eta gaurko hitzaldia* (Joxe Mari Otermin), balioaitzeko gelan.

KULTURA ▶

'El jefe de todo esto' antzezlana Leidorren estreinatuko dute etzi

Ados taldearen lan berria Lars Von Trier zuzendariaren azken pelikula arrakastatsuen moldaketa izan da

HARRIET BELLOSO

Etzi, 20:00etan eta Leidor aretoan, *El jefe de todo esto* antzezlana estreinatuko dute, beraz, Gipuzkoan lehen aldiz ikusteko aukera izango da.

Ados antzerki taldearen obra berri hau Lars Von Trier zuzendari ospetsuaren azken filman oinarritua dago. Bere lana oso ezaguna da munduaren ikuspegi kritiko bat erakusten duelako. Sari asko irabazi ditu bere film eta errepor-

taiengatik. Antzezlana honetarako egokitze eta zuzendaritza lanak Garbi Losadak egin ditu. Helduei zuzendutako komedia honetan aurpegi ezagun asko aurki daitezke: Oscar Terol, Elena Irureta, Koldo Losada eta Mila Espiga telebista saio eta film ugaritan azaldutakoak.

Publikoaren interesak eta gaur egungo gaiak lantzen dituzte antzezlana honetan. Nortasun aldaketa baten inguruan garatzen da komedia korapilatsu hau. Simulazioz eta botere-

ari buruzko erreflexio ugari egongo dira ere. Enpresen gizatarkuntza faltsuaren eta lan harremanen eta pertsonalen inguruko komedia da. Aktoreen narzizismoa oso garrantzitsua izango da.

Film saritua

Ados taldea eta Gabi Losada azken denboraldietan arrakasta asko lortu duten antzerkien arduradunak dira. *Las mujeres de verdad tienen curvas*, *Ma-*

nolito gafotas, *Einstein*, *El vendedor de tiempo* eta *El amigo de John Wayne* bezalako obrek iritzi paregabeak eta areto gehienak bete dituzte. Arte eszenikoen MAX saria, Ercilla saria edo Eszenako Zuzendarien Elkarteko saria lortu dute beraien lanarekin.

Beraien ibilbidearen zehar gizartearen kezkekin zerikusia duten gaiak jorratzen saiatu dira. Antzerkia iritzi da, eta horrekin lan egiten dute. Umorea oso baliosua da, eta serio hitz egiteko giltza dela defendatzen dute.

Sarrerak hiru modutara lor daitezke: www.kutxa.net webgunetik, Servikutxa kutxazainetan edo 943 00 12 00 telefono zenbakira deituta.

DATUAK ▶

Antzezlana.

El jefe de todo esto.

Lekua. Leidor aretoa.

Eguna. Etzi.

Ordua. 20:00etan.

Hizkuntza. Gazteleraz.

Taldea. Ados.

Aktoreak.

Oscar Terol

Elena Irureta

Koldo Losada

Mila Espiga

Carlos Nguema

Josean Bengoetxa


Santiago Sueiras

Generoa. Komedia.

Egokitzapena

eta zuzendaritza.

Garbi Losada.



El jefe de todo esto antzezlaren kartela. HITZA

hitza ren eskutik

Pirritx eta Porrotx

PANPINAK

eta **DVDa** **etxeko txikiak** jolasteko

"Mari Motots"
ikusizunaren DVDa
18€

Pirritx eta Porrotx
(motxila opari)
40€

Pirritx
(poltza opari)
20€

Porrotx
(poltza opari)
20€

Egin eskaria amaitu baino lehen
902-82 02 01

hitza

Kale Nagusia 45
943 247 469
Villabona

o'baba

Razioak,
otartekoak
eta
pintxoak

Pintxoak-otartekoak-plater konbinatuak-sandwichak-hanburgesak
Kartako menua-taldeentzat menuak-sagardotegiko menua

Usabal Kiroldegia
Tolosa Tel.: 943 577573
www.bidebide.es

bidebide
restaurantebarr

GIZARTEA ▶

‘Zaporea eta osasuna’ lelopean, hemen da berriz Babarrun Astea

Hilaren 15ean hasiko da eta hainbat ekitaldi izango dira; batzuk «betikoak» izango dira, eta beste batzuk berriak



Aurkezpenean: Javier Yurrita, Jesus Arguiñarena, Iñaki Galdos, Jexemi Gomez eta Arantxa Ariztimuño. E. E.

ESTI EZEIZA

Datorren ostegunean, hilak 15, hasiko da Tolosako Babarrun Astea. Zaporea eta osasuna izango da datozen egunetan Tolosako Udalak antolatzen duen Babarrunaren Jaiaren gai nagusia. Tolosa Gourmet-en ekimen berri honekin, lekaleen plater desberdinen bitartez zaporea eta osasunaren mundua ezagutzeko aukera eskaintzen da.

Babarrun Astearen 21. edizio honetan omenaldia egin nahi diote babarrunari. Honenbestez, Tolosako babarrun-

na beste lekale mota batzuekin batera azalduko da Tolosa Gourmet-en parte izango den gastronomiaren inguruko topaketan. Egitasmoaren aurkezpen ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapeneko zuzendari den Jesus Arguiñarenak aipatu bezala, «egitarauko erronketako bat da babarruna beste lekale batzuekin alderatzea».

Argiñarenak nabarmendu zuen ere, aurtengo egitarauari irudimena jarri zaiola. Izan ere, bere ustetan, «Babarrun Astea bezala urtero errepikatzen diren ekitaldietan, erraza da topi-

koetan erortzea, baina aurten- go egitaraua berrikuntzez betea dator». Horren adibide da, *Gastronomiaren onena* egitasmoarekin elkarkidetzan antolatutako ekitaldiak.

Otordu bereziak

Duela bederatzita urte sortu zen *Gastronomiaren onena* egitasmoa. Topaketa hauek orain arte Donostian, Kurasaalean gauzatu dituzte, baina aurten kalera aterako da eta Tolosan izango da. Ekitaldien artean, lekaleen hamar sukaldari onenek haien plater bikainak es-

kainiko dituzte jateko bihurtuko den Zerkausi eraberrituan. Horrez gain, hamar sukaldari- rik, hauen artean bost izarretako Michelin daudelarik, I. Urrezko Dominak jasoko dituzte lekaleen prestaketa egindako lanarengatik. Hau da, haien plateretan lekaleak gehien eta hobekien prestatu izanagatik. Honez gain, herritarrek plater sarituak dastatu ahal izango dituzte hilaren 18an, 14:30etik aurrera, Zerkausian eskainiko den bazkarian, 40 euroren truke.

Bestalde, Udalak eta ostalari- rik ongietorria emango diete Tolosan ospatuko den Gastronomiaren Onenaren IX. Batzarreko inaugurazio afarira doazen batzarkideei.

Babarrun bilketa

Atzo, Babarrun Astearen aurkezpena izan zen Arantxa Ariztimuño, Babarrun Elkarte- ko kudeatzailea. Berak azaldu- takoa arabera, aurten eguraldi nahasia egin du eta ho-

rrek babarrunaren bilketa atzeraraztea ekarri du. Ariztimuñoen esanetan, «aurten biltzen ari garen babarruna maila gorenekoa da, itxuraz oso ona da eta aurki izango da merkatuan».

Udaberria euritsua eta hotza izan zen, horregatik berandu erein zen babarruna. Ondoren, uda eta udazkena hotzak izan dira eta berezitasun gisa, ez da hego haizerik ibili. Azken eguraldi baldintza honek eragin handia du babarrunaren kalitatean. «Eguraldi nahasi» honen ondorioz, aurreikusitako baino kilo gutxiago bilduko dituztela aipatu zuen Babarrun elkarte-ko kudeatzaileak. Izan ere, 22 lur hektarea landu dituzte Gipuzkoan, eta hauetan ereindako babarrun gutzia oraindik bildu gabe dago. Baina, aurkezpenean azaldu- takoa arabera, 40.000 kilo biltzea aurreikusten zuten nekazari- rik, dena den, atzo aipatutakoaren arabera, «ziur- rrenik ez dituzte horrenbeste kilo bilduko».



TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 zk.dun Arau Forala erabiltza, eta berak agindu bezala, 2007ko urriaren 31n izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin, honako hau erabaki zuten:

2008. urteko urtarrilaren 1etik aurrera, ondorengo zerrei buruzko Ordenantza Fiskalak eta eranskinak aldatzea:
 - Ondasun higiezinaren zerga
 - Jarduera ekonomikoaren zerga
 - Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga
 - 5 Hiri zaerako lurren balio-gehitzearen zerga
2008. urteko urtarrilaren 1etik aurrera aldatzea jardueren eta zerbitzu prestazioen gaineko tasak erregulatzen dituen Ordenantza, eranskin hauek aldatuz:
 - eranskin: Dokumentu administratiboak
 - eranskin: Hirigintzako baimenak
 - eranskin: Establezimenduak irekitzeko baimenak.
 - eranskin: Auto-taxi eta akurako ibilgailuen lizentziak eta baimenak.
 - eranskin: Zabor bilketa eta ezabaketa
 - eranskin: Kanposantua
 - eranskin: Ibilgailuak bide publikotik eramatea eta jasotzea.
 - eranskin: Kiroi instalazioak
 - eranskin: Lurreamendi egoitza
 - eranskin: Etxe etxeko laguntza
 - eranskin: Zuloaga Txiki aterpetzea
 - eranskin: Zuloaga-Txiki Natura Eskola
 - eranskin: Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia
 - eranskin: Babeseko etxebizitzak
 - eranskin: Telesistentzia
 - eranskin: Jangela soziala
2008. urteko urtarrilaren 1etik aurrera aldatzea Udalarren jabari publikoak okupatzeagatik edo erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak erregulatzen dituen Ordenantza eta eranskinak:
 - eranskin: Hesiak, aldamiok eta abar.
 - eranskin: Espalioetako ibilgailu-pasabideak eta bide publikoan aparkatzeko lekua gordetzea.
 - eranskin: Merkatuak.
 - eranskin: Bide eta jabari publikoetako lurzoru, aire eta lurrazpien erabilera edo aprobetxamendu berezia.
 - eranskin: Ferialekua.
 - eranskin: Ferietako eta festetako postuak.
 - eranskin: Kultur Etxea eta gainerako udal higiezinak
 - eranskin: Ibilgailuen aparikaldi mugatua bide publikoan
2008. urteko urtarrilaren 1etik aurrera aldatzea jardueren eta zerbitzu prestazioen gaineko prezio publikoak erregulatzen dituen Ordenantza eta eranskinak:
 - eranskin: Hainbat udal zerbitzu.
 - eranskin: Udal garraio zerbitzua

Hartutako akordioak eta bideratutako espedienteak jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foralak agindu bezala; horretarako iragarki argitaratuko dira bide ofizial honetan, Udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko egunkaririk zabalduenetako batean. Hori dena arau hauen barruan:

- Non dauden agerian: Udal honetako Idazkaritzan.
- Aztertze eta erreklamatzeko epea: 30 egun abil, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egun abiletik hasita, bulegoko ordutan.
- Erreklamazioa egin dezaketenak: uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foraleko 17. artikuluan azaltzen direnak.
- Non aurkeztu: Udaleko Sarrera Erregistro Orokorrean, Administraziozko Prozeduraren Legeak bere 66. artikuluan esaten duen tokietan ere bai.
- Non aurkeztu errekursoa: Osoko Bilkuran.

Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamazioerik edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik behar.

Tolosan, 2007ko urriak 4ean

ALKATEA

Jokin Bildarratz Sorron

EGITARAUA ▶

AZAROAK 10, LARUNBATA
14:30. Mus txapelketa Beotibar pilotalekuan.

AZAROAK 14, ASTEAZKENA
19:00. Ekoizleen lehiaketarako babarrun hautaketa Fronton jatekxan.

AZAROAK 15, OSTEGUNA
Egun osoa. Tolosako babarrunaren eguna Donostian (Kofradiaren eskutik), Hotel Londresen bazkaria. 17:00. Babarrun pintxoaren lehiaketa Zerkausian.

AZAROAK 16, OSTIRALA
11:00. Pintxo lehiaketaren irabazleen izendapena egingo

da Tolosako udaletxeko pleno aretoan.

AZAROAK 17, LARUNBATA
09:00 - 14:00. Babarrun azoka eta ekoizleen lehiaketa izango dira Triangulo plazan. 11:00. Txapela jartzearen lehiaketa Txinparta elkartearen. 12:00. Babarrun eta sagardo dastaketa (Kofradiaren eskutik), Trianguloan. 14:00. Anaiartze bazkaria Casino elkartearen: Tolosako babarruna eta Mongeta del Gainxet (Katalunia). 22:00. Alde Zaharreko Ezpeleta elkarte-ko tabernetan babarrun jatea. 22:30. Euskal Herriko,

Valladolideko eta Herrialde Katalanetako herri dantzak ikusteko aukera Beotibar Frontoian.

AZAROAK 18, IGANDEA
09:00. Lekaleen azoka Trianguloan eta lehiaketa Zerkausian.

11:00. Gure Kaiola elkarteak antolatuta sukaldari lehiaketa eta bazkaria Ferialekuan. 12:00. Aizkolaria Beotibar Frontoian. 14:00. Bazkaria Zerkausian. 14:00. Ferialekuan bazkaria. 21:00. Afaria Zerkausian, *Lo mejor de la gastronomía* Donostiako kongresuaren irekiera.

AITOR USANDIZAGA ▶ EHNE SINDIKATUKO TOLOSALDEKO ORDEZKARIA

«Gure helburua nekazaritzaren inguruko eztabaida dinamizatzea da»

EHNE sindikatua V. Kongresua ari da prestatzen; gaur bilera dute eskualdeko nekazariekin lehen iritzia jasotzeko

IÑIGO TERRADILLOS

EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkarte) sindikatuak 2008 urtearen hasieran egingo du V. Kongresua. Kongresu hori prestatzen hasiak dira dagoe-neko, batzorde berria osatu baitute, eta kongresua bitarte orain arte egindakoaren balantzea, nekazaritza eredu eta barne antolaketa aztertuko dituzte, besteak beste. Aitor Usandizaga esne ekoizlea (As-teasu, 1976) da Batzordeko Tolosaldeko ordezkaria.

Batzorde berria aurkeztu berri duzue. Zein da zuen lana? Ia hiru hilabete geratzen dira Kongresua egiteko, eta batzordea osatzaren helburua, kon-



HITZA

gresua prestatzea izan da. Bala bakoitzeko arduradun bat dago, eta ni Tolosaldekoa naiz. Gure helburua, nekazaritzaren inguruko eztabaida dinamizatzea da.

Nola egingo duzue hori?

Batzordean gai desberdinak erabakiko ditugu, metodologia landuko dugu, eta eztabaida ireki eta iritzia jasoko ditugu. Gaur egingo dugu nekazari-ekin lehendabiziko batzordea iritzia-eta jasotzeko. Gero beste bi ere izango dira. Azkenean, atertzen ditugun ondorioak izango dira Kongresura eramango ditugunak.

Gauzak asko aldatu dira nekazaritzan, eta ez onerako.

Hala da. Guk orain arte egin dugun lanari begiratuko diogu, eta aurrera begirako lidoak markatuko ditugu egoerak onera egin dezan.

Zein esango zenuke dela egungo baserriaren egoera eskualdean?

Orokorrean bezala, kopuruak asko egin du beherantz; gero eta baserriar gutxiago gara. Arrazoi askorengatik da hau: azpiegitura handiek eragindako kalteak, esaterko. Gaur egungo ekonomian nekazaritzak garrantzia oso txikia du, eta hortik egungo ondorioak.

TOLOSA ▶

'Gizakia eta erlea' hitzaldia bihar, 15:00etan

Gizakia eta erlea hitzaldia emango du bihar Luis Mari Intzak 15:00etan Tolosako Helduen Hezkuntzan.

ALEGIA ▶

Ezker abertzalearen batzarra, gaur

Gaur, 21:00etan, Ikaztegieta-ko liburutegian, ezker abertzaleak deitutako herri batzarra izango da. Egungo egoera eta aurrera begirako egitasmoak landuko dituzte.

TOLOSA ▶

Autoritateari buruzko hitzaldia astelehenean

Hurrengo astelehenean, 18:30ean *Autoritatea eta disziplina* hitzaldia eskainiko du Jose Francisco Amiana psikopedagogoak Orixe institutu-DBHko 1go, 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoei zuzendua.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

VII. Mus txapelketa azkarra Beotibarren

HARRIET BELLOSO

Datorren larunbatean, hilaren 10ean, Beotibar pilotalekuan, VII. Mus Txapelketa azkarra jokatuko dute. Fronton kafetegia antolatuko du eta arratsaldean, 16:30ean hasiko da.

Aurtengo edizioan berritasun erakargarri bat egongo da. Lehenengo bikote mixtoak bi pertsonentzako Teneriferako bidaia irabaziko du. Beste sariak oso garrantzitsuak izango

dira ere. Txapelketaren garaileak 1.300 euro, txapelak eta garaiak eramango dituzte, bigarren sailkatuak 600 euro eta garaiak eta hirugarrenak aldiz, 300 euro.

Jokuak lau erregera eta sei hamarretako hiru ustelara jokatuko dira eta bikote bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu Fronton Kafetegian. Txapelketaren zehar epaileen erabakiak mugigaitzak izango dira.

TOLOSA ▶ KULTURA

Jone eta Etxe larunbatean Bonberenean izango dira

H. BELLOSO

Bakarlarriak eta pop doinuak nagusi izango dira asteburu honetan Bonbereneako eskematokian.

Ostiralean Aina Legardon eta Saioa taldeak izango dira ikusgai. Lehenengoak Bartzelonatik datoz beraien azken lana, *Each day a lie* aurkeztera eta Saioa bakarlarria Legorretatik dator *Saioa*, bere lehen luzapen txikiko kantak jotzera.

Larunbatean, aldiz, Jone eta



Jone anoetarra. ESTI EZEIZA

Etxe bakarlarriak ariko dira. Jone anoetarrek kaleratu berri duen bere bigarren lana, *Kateak* izeneko, aurkeztuko du kontzertuan. Etxe, berriz, Bilbotik dator eta bigarren lan batekin dator baita ere. *Bidea egin ez* izena du bere disko berriari eta arrakasta handia ari da lortzen. Bi egunetako emanaldiak gaueko 22:30ean hasiko dira eta sarrerren salneurria beti bezala 5 eurokoa izango da.

iragarki laburrak ▶

EROSTEKO

Umeentzako aukia.

Umeentzako Quinny XL Freestyle 3 markako bigarren eskuko kapazoa erosi nahi nuke. Interesatuek deitu 618 47 13 17 telefono zenbakira.

Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jardunak.

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu



Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin

• KONTABILITATEA

• ZERGA

• NOMINAK

• KOBRANTZAK

Jarduna
administrazio zerbitzuak

Martin Ugalde Kultur Parkea
ANDOAIN
943-30 40 30
administrazioa@jarduna.net

BERROBI ▶ KIROLA

Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa hilaren 17tik aurrera

Mutilek banaka eta binaka jokatuko dute eta neskek binaka, abenduaren 7an erabakiko den Frontenis Txapelketan



Mutilak eta neskek ariko dira aurten ere Berrobiko Frontenis Txapelketaren baitan. MADDI SOROA

ASIER IMAZ

XVI. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa hilaren 17an jarriko dute martxan Berrobin. Izena emateko epea herenegun amaitu zen eta aurten ere partaide ugari eman dute izena zerrendetan.

Berrobiko Frontenis Txapelketak Tolosaldean eta eskualdetik kanpo sona handia dauka. Partaideak gehienbat Gipuzkoako txoko guztietatik hurbiltzen dira. Honen ondorioz eta mailari dagokionez, kalitate handiko txapelketa dela esan daiteke.

Hiru maila ezberdin egongo dira txapelketaren barruan, urtero bezala. Mutiletan binaka eta banakako lehiaketak egongo dira, nesketan berriz bina-

kakoa. Guztira binaka, 50 bikotek eman dute izena mutiletan eta banaka 41ek.

Txapelketa hilaren 17an, larunbatean, hasiko da. Lehenengo asteburuan binakako

partidak jokatuko dira eta bigarren asteburuan banakakokak. Maila guztietako finalak berriz abenduaren 7an jokatuko dituzte, baita hirugarren eta laugarren postuak ere.

Nikolas Artola gabe

Aurtengo **Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketan** ez da egongo Nikolas Artola berrobitarra. Hutsune handia izango du beraz hilaren 17an hasiko den frontenis txapelketak. Azken urteetan, jaun eta jabe izan da etxeko kirolaria. Bere nagusitasuna binaka eta banaka erakutsi du, besteak beste 13 txapela lortuz banakako mailan. ◀



Nikolas Artola. M. SOROA

LIZARTZA ▶ KIROLA

Finalerdietako ligaxka Olaetxearekin hasiko da

Lau t'erdiko Promozio Txapelketan Diazen aurka neurtuko da lizartzarra etzi

A. IMAZ

Mikel Olaetxeak Promozio Lau t'erdiko BBK Txapelketaren finalerdietako ligaxkaren lehen partida jokatuko du. Aurrean Diaz izango du etzi Balmasedako (Bizkaia) frontoian 20:00etatik aurrera.

Asegarcekoak dira bi pilotariak eta orain arteko lehiatan forma onean daudela frogatu dute. Finalurreko hauek helteko, biek bina aurkari hartu dituzte mendean; Diazek Iza eta Olazabal gainditu dituen bitartean, Olaetxea Beloki II.a eta Larralderi nagusitu zaie.

Elkarren aurka jokatutako neurketa bakarrean, hots, Hondarribian (Gipuzkoa) joan den irailaren 11n, Olaetxea eta Mendizabal II.ak 22 eta 14 irabazi zieten Diaz eta Urrizelkiri.

Atzo pilota aukeratzan izan



Mikel Olaetxea. HITZA

ziren bi pilotariak eta enpresak jakitera eman duenez inongo arazorik gabe aukeratu zituzten pilotak. Diazek 103,2-104 gramoko pilotak aukeratu zituen eta Olaetxeak 104,6-104,2 gramokoak.

BALIARRAIN ▶ KULTURA

Kulturaren inguruan hitzaldi, talo eta antzerki

ERREDAKZIOA

Kultur Elejira ospatuko dute Baliarrainen bi astebururen inguruan antolatutako ekitaldiekin. Lehen eguna biharkoa izango da, bertan Iñaki Arratibelen hitzaldia egongo delarik. Hilaren 18an berriz, pilotalekuan Arkaitz Elkarteak antolatzen duen talo eta gaztain jatea izango da. Txartelak erosteko epea gaur amaitzen da, Zartagi Jatetxean lor daitezke 20 euroren truke.

EGITARAUA ▶

AZAROAK 9, BIHAR

19:30. Iñaki Arratibel kirol medikuaren eskutik: *Jarduera fisikoa eta Osasuna* hitzaldia izango da.

AZAROAK 11, IGANDEA

14:00. Arkaitz Elkarteak antolatutako talo eta gaztain jana.

18:00. *Bota patsa* antzezlan.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko azaroaren 8a, osteguna ▶ V. urtea

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

6

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(balantza argizkeko, harpidedun egileko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Txintxarri Eguna azaroaren 18an izango da. Bazkaria Txintxarri jatebetean izango da. Bazkarirako txartelak 35 eurotan salgai Kafe Letamendian, jubilatuen tabernan eta Landa Enea kafetegian.


Amasa. Jaien baitan, Gazteen Eguna: 16:30ean soka dantza eta aureskua plazan eta ondoren erromeria trikilariekin; San Martin jaien baitan.

Amezketak. Oroimen galera. *Nola gutxitu edo arindu gaiz hau?* gaiak hitzaldia Ergoneko hirugarren adineko lokalean 18:00etan.

Berastegi. Gaztainondo Elkartearen, ondoen erakusketak Lizarrusti Parkeko kideen eskutik 16:30etik 20:00etara. larunbata eta igandean 11:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara. eskolakoek.

Ibarra. Bizi Nahi jubilatutako elkarrekin Amurriora irteera antolatu du hilaren 17rako, Gasteiz eta Zumaia ere bisitatuz. Izen-ematea, elkartean 26 eurotan. (28 ez bazkideek).

Irura. Udalak ondorengo hiru ikastaroetatik bi antolatu nahi ditu: lehen



Abiba diskojaia larunbatean

TOLOSA ▶ Abiba diskojaia izango da Beotibar pilotalekuan etzi, larunbatekin. 22.00etatik 05:00etara egingo dute jaialdia. Bertara joan nahi dutenek 3 euro ordaindu beharko dituzte. —salgai daude Topagunean eta Gazte Infor-

mazio Bulegoan, eta egunean bertan pilotalekuko leihatilan—. Halaber, inguruko herrietarrek — Alegia, Amezketak, Ikaztegieta, Ibarra, Berrobi, Eldua, Elduain eta Berastegi— etortzeko aukera emango dute, autobus zerbitzuarekin. HITZA

sorospen tailerra; edergintza, makilaje eta kosmetika tailerra eta gozogintza. Izena emateko: udalategian, liburutegian, 943 69 13 33 zenbakian edo kultura@irura.net helbidean.

Tolosa. Engomadora Modernako langile ohien bazkaria azaroaren 10ean izango da Fronton jatebetean. Izen-ematea, 943 671943, 943 674669 eta 943 651955 telefono zenbakietan.

Tolosa. Jesusen Zerbitzarien haurtzaindegiko ikasle ohien bilera azaroaren 11n izango da: meza 11:30ean komentuan eta bazkaria Uzturre sagardotegian. Izen-ematea, 943 673081 telefono zenbakian.

Ugarte. Sardina-jatea Ugarten izango da iluntze

parte. Txartelak salgai daude herriko tabernetan. 10 euroren truke. Txartelak azaroaren 4ra arte izango dira salgai. Beraz, erabakia hartua baduzue, ez egon zain, eta segi txartela erostera.

ZINEMA

Tolosa. Nuri Bilge Ceylan zuzendariaren *Los climas* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, Zine forumak antolatuta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

Leiza. Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leiztan Udalteko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

hitza Harpidedunen txokoa

Larunbata azaroak 10, 20:00etan
Tolosako Leidor aretoan eskainiko den

El jefe de todo esto antzezlanerako
bi sarrera pare zozketatuko ditugu!

Parte hartzeko,
deitu goizez telefono
zenbaki honetara:
943 65 56 95



zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

hitza **bertso jaialdia**

Sebastian ANDONI LIZASO
Sustrai EGAÑA KOLINA
Etxahun LEKUE
Unai ITURRIAGA
Iratxe IBARRA

Azaroaren 4an,
18:00etan,
AULESTIKO Torrezelai frontoian

Gai jartzailea:
Maite BERRIOZABAL

sarrera: 6 euro